

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Argitaratu da deialdia, helduendako euskararen irakaskuntza sustatzen duten entitate juridikoendako laguntzena

Berritasunik handiena da aurtengo laguntzen deialdia urte anitzekoa izanen dela, ikasturtearen arabera izanen baita

Osteguna, 2017.eko azaroak 9

Euskarabideak –Euskararen Nafar Institutuak– laguntzen deialdia egin du. Laguntza horien xedea da helduendako euskararen irakaskuntza finantzatzea 2017ko urritik 2018ko irailera arteko epean, eta zenbatekoa 700.000 eurokoa da guztira.

Deialdiaren oinarriak gaur argitaratuko dira, azaroaren 9an, ostegunez, [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#), eta laguntzak eskatzeko epea azaroaren 20an amaituko da. Berritasunik handiena da aurtengo laguntzen deialdia urte anitzekoa izanen dela. Helduendako euskararen irakaskuntza ikasturtearen arabera antolatzen denez, aurtengo exekutiboak inguruabar hori kontuan izan du eta 2017ko urritik 2018ko irailera bitarteko epea hartu du.

Beraz, aurrekontuko gastu osoa bitan zatitu da: 60.000 euro 2017ko urritik abendura arteko eperako eta 640.000 euro 2018ko urtarriletik irailera arteko eperako.

Aipa dezagun aurreko deialdian –2017ko urtarriletik irailera bitarteko epea hartzen zuenean– guztira 16 zentrok hartu zutela parte deialdian eta horiek 350 talde baino gehiago artatu zituztela ikasturte horretan, guztira 1893 ikasle zirela.

Goranzko joera

Azken ikasturteetan helduendako euskara ikastaroen matrikulazioak gora egin du. 2016-2017 ikasturtean osotara 6.559 ikasle eman zuten izena, aurreko ikasturtean baino 275 ikasle gehiagok, zenbateko horretan sartuta zentro hauetako guztietako izen emateak: ekimen sozialeko euskaltegiak, hizkuntza eskola ofizialak –Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala barne–, enplegatutako publikoendako euskaltegiak eta Zubiarte euskaltegi publikoa.